

«Gertuko» uraren eta ur partzuergo publikoaren alde egin dute herritarrek

«Bizitza eta osasuna ezin direla negozio pribatua» izan argi utzi dute Merkurion egindako agerraldian • Oiz mendiko ubideak berriztea ezinbestekoa dela iritzi diote

- ANE MARURI ARANSOLO
«Gertukoa eta publikoa» den ura eta ur partzuergoa eskatu zuten herritarrek herenegun arratsaldean, Gernika-Lumon. Agerraldian eskualdeko herritarrez gain, zenbait herrietako alkate eta zinegotziak egon ziren; besteren artean, Idurre Bidaguren Bermeoko alkatea, Iratxe Arriola Eako alkatea eta Aitor Goldaraz Muxikako alkatea.

Ura «bizitzaren oinarria» dela azpimarratu zuten, eta bizirik dauden eta etorkizunean biziko diren herritarren oinarritzko eskubidea dela aldarrikatu zuten. «Badakigu nondik datörren ura, zelan erortzen den zerutik, zelan batzen den mendi tontorretan, eta zelan heltzen den ubideetatik ingurune honetara». Horre-



Gernika-Lumoko Merkurion egin zuten agerraldia, eguaztenean. A.M.

gatik, ura ezin dela pribatua izan azaldu zuten ekitaldian, beste hitz batzuetan, ezin dela negozioarako erabili. «Badaude uragaz

Uraren jabegoa eta hartzaile-ria %100 publikoa izatea bermatu behar dela deritzote herritarrek, «guztiena den partzuergoaren alde». Hala, ur publikoaren inguruan mugitzen diren guztiek ur partzuergoko langileen enpleguak babestu behar dituztela esan zuten. «Uraren ziklo integrala guztion begiradapean eta guztion eskuetan dagoela ziurtatu behar da».

Uraren «kudeaketa publiko, garden eta eraginkorra» bermatu behar dela argi utzi zuten herritarrek. Horretarako, «demokrazia parte hartzaileko modu berriak sustatzea» bultzatu behar dela esan zuten.

Busturialdeko uraren kudeaketa Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren esku utzi nahi dutenak

ere badaudela gogorarazi zuten: «Badira ura herriko udaletatik eta eskualdetik urrundu nahi dituztenak ere». Eta integrazioa gertatuz gero, eguneroko kudeaketa eta erabakiak ordetzakirritza txikiko organoetan utziko direla azaldu zuten.

Konponbide bila

Busturialdeko Ur Partzuergoa dela ura gertu egotea bermatzen duen bakarra esan zuten, «uraren ziklo osoko kudeaketa ekonomiko egokia ziurtatzen duen bakarra delako».

Gainera, konpondu beharreak Busturialdeko Ur Partzuergoan ere badaudela aitortu zuten; lehorte garaian ur eskasia dagoelako. Arazo horiei konponbide eman behar zaiela argi daukate Merkurion bildutako herritarrek, eta Oiz mendiko ubideak berriztea ezinbestekoa dela iritzi diote: «Ez gara konponbideen zain egon behar, bultzatu egin behar ditugu».

Ekitaldia bukatzeko, ur guztiak itsasotik itsasorako bide integrean eta kontsumitzaileengandik hurbil egon behar direla aldarrikatu zuten, *Ure hurre* lelopean.

Bertoko lau gaztek memoria historikoa landuko dute Kroazian

- A.M.A. Gernika-Lumo
Giza eskubideak eta memoria historikoa lantzeko udaleku bat antolatu du Kroazian Europako Batasuneko Erasmus+ programak. Bertan izango dira Gernika Gogoratuz elkarteak aukeratutako bost gazte; horien artean, bermeotar bi eta gernikar bi (bosgarrena Salamancakoa da).

Bost gazteak eta beraien talde-

ko arduraduna *Venues of Victims / Venues of Perpetrators* proiektua lantzerantz doaz Kroaziara, Europako beste hamabi herrialdeetako kideekin batera.

Gaur egungo historia gazteentzako «erakargarri bihurtzeko» programa da, eta historia jarduerak desberdinen bidez landuko dute, «beste begi batzuekin aztertzen ikastea eta balio europe-

arrak partekatuzeko bidea» bultzatu nahi dutelako.

Jugoslavia zaharreko gatazka lekuetan zehar ibiliko dira abuztuaren 18tik 31ra bitartean. Besteren artean, Zagreb, Jasenovac, Pula, Vukovar eta Opatija bisitatu dituzte. Herri eta hiri horietan, gatazka desberdinen lekuko izan ziren tokiak bisitatu dituzte, bai eta gerra bizi zutenen




Proiektua prestatzeko egindako bilera, Weimaren (Alemania). G.G.

testigantzak jaso ere. Iraganak Kroazian utzitako leinua giza eskubideen eta memoria historikoaren ikuspegitik aztertzeak aukera edukiko dute. Gainera,

Kroazian ikusi eta ikasitakoagaz, hausnartzeko espazioak sortu ahal izango dituzte, eskualdera bueltatzen direnean hausnarketekin jarraitzeko.

2018ko, uztailaren 27a



HARPIDEDUN IZATEAK BADU SARIA

harpidedunen
TXOKOA HITZA

1 TXINDOKIKO ITZALA ABENTURA PARKEA

Bi lagunentzako bina sarrera

628 947 253 | 943-65 47 57
ABALTZISKETA
www.txindokikoitzala.com/eu/
info@txindokikoitzala.com

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko. Aurrez deitu.

MARIA JESUS IBARGUENGOITIA DIAZ (Gernika-Lumo)
MARI KARMEN ARKOTXA ELU (Ondarroa)



2 TXURI URDIN irrastaketa librea

Bi lagunentzako bina sarrera

Anoeta pasealekua, 24 (Donostia)
943-46 44 04 | www.eltxuri.com

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko.

SANTI ETXABURU ELU (Ondarroa)
AINTZANE BILBAO URRESTI (Bermeo)



3 MITXEL ZENARRUZABEITIA UNAMUNO

Barazkiak eta fruituak. Ekoizpen ekologikoa. Sasoiko produktu sorta.

Galantena Baserria.
Ibarrola Auzoa. AULESTI
634 9117 54

HITZA jarriko da saridunarekin harremanetan.

IÑAKI UGARTEBURU MENDIKUTE (Lekeitio)

